

# ARTE EDERREN FAKULTATEA. BABES NEURRIAK LASERREKIN EGIN BEHARREKO LANETARAKO

## III. ERANSKINA

### \* Segurtasun eta higiene arau orokorrak laserrekin egin beharreko lanetarako

#### Ebakuazio bideak

- Tokian tokiko segurtasun elementuak ezagutu behar dira eta larrialdietarako irteerak non dauden jakin.
- Irteerok errespetatu behar dira beti, ezelako objektuekin oztopatu gabe. Honez gain, zehatz-mehatz jakin behar da itzalgailuak, mangerak, segurtasun dutxak eta begiak garbitzeko ontziak non dauden.

#### Begien babesa

- Erne egon seinalizazio eta segurtasun fitxetan adierazitakoari, izan baitaiteke nahitaezkoa segurtasun betaurrekoak erabiltzea eta ukipen lenterik eramateko debekua. Hau zinez inportantea da.

#### Nola jantzi

- Zenbait ikasgela, lantegi eta laborategitan, nahitaez jantzi behar da mantala edo lohihartzekoa, itxita egon behar da beti eta, laborategien kasuan, ezin erabil daitezke bertatik at.
- Gomendagarria da zapata itxiak janztea eta ez sandaliak.
- Eskularruak erabiliko dira eskuen babesteko.
- Ile luzea bilduta eraman behar da beti.
- Ez da erabili behar eraztunik, eskumuturreko, zapi eta abarrik.
- Ez dira erabili behar ukipen lenteak zenbait makina eta erreminta erabiltzerakoan.

#### Arau higienikoak

- Ez jan eta ez edan ikasgela eta lantegietan. Eskuak beti garbitu behar dira tokiotatik atera baino lehen.
- Ezin erre daiteke.
- Ez garbitu hautsa aire konprimituko konpresoreaz.

#### Banakako babeserako bitartekoak

- Nahitaezkoa da zenbait ikasgela eta lantegitan segurtasun betaurrekoak erabiltzea.
- Zenbait eragiketa egiteko (ebakidurak, beroa, kimikoak eta abar) eskularru egokiak erabili behar dira derrigor.
- Banakako babes ekipotarako P001G/EHU prozedurarekin bat etorruta, irakasgaiaren ardura duten sail edo pertsonen definituko dute banakako babes ekipoa nahitaez erabili behar den edo ez, egin beharreko eragiketa bakoitzean.

## **ARTE EDERREN FAKULTATEA. BABES NEURRIAK LASERREKIN EGIN BEHARREKO LANETARA KO**

### Lan eremuaren baldintzak

- Garbi eta ordenatuta mantendu behar da, libururik, berokirik, poltsarik edo beharrik gabeko ekiporik gabe.

### Portaera

- Adeitsu izan behar da eta sen ona erabili ikasgela, lantegi, plato eta laborategietan. Ez da txantxarik egin behar, ez korrika egin, jostatu, bultzatu edo oihuka.

### Baimendu gabeko praktikak

- Ezin da inola ere irakasleak edo ikertzaile nagusiak baimendu gabeko praktikarik egin, ez eta elementu arriskutsuak martxan utzi gainbegiratu gabe.

### Ekipo eta gailuen erabilera

- Ez da halakorik erabili behar nola funtzionatzen diren ondo jakin gabe. Zalantzarik izanez gero, galdetu irakasleei edo, eremu zehatzen kasuan, teknikariari.
- Erabilitako gailuak garbi utzi behar dira eta erabiltzeko prest eta pronto. Egiaztatu momentu guztietan gailuen mantentzea nola dagoen, ekipoaren jarraibideen arabera.

## **ERAGILE FISIKOAK**

### **BABES NEURRIAK LASERREKIN EGIN BEHARREKO LANETARA KO**

- Egiaztatu unean une erabiltzen duzuen laserrak daraman sailkapen etiketa
  - Erabili beti segurtasun betaurrekoak.
  - Ahalegindu objektu metalikoak ez erabiltzen, izpiaren islapen zuzenik ekiditearren.
  - Ez jarri azala laser izpiaren eraginpean.
  - Ez begiratu zuzenean laser izpiari, nahiz segurtasun betaurrekoak jantzita izan.
  - Ahal denik eta zorrotzen jokatu erradiazio ez ikusgarriarekin.